

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TOLOSALDEKO APATTAERREKA
INDUSTRIA LURRA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA,
2017**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuen Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiarena.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.